

UDAL PILOTALEKUA ERABILTZEAREN ZIOZKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Toki Ogasunak arautzen dituen 5/89 zenbakidun Foru Arauan ezarritakoaren arabera, Udal honek Loiola auzoko pilotaleku estaliaren erabilpenaren ziozko prezio publikoa ezarri eta esijitzen du, Ordenantza honen arauen arabera.

2. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaindu behar dutenak aurreko artikuluan aipatutako instalazioak erabiltzen dituztenak dira.

3. artikulua

Prezio publikoaren zenbatekoa Ordenantza honen eranskinean azaltzen den tarifaren arabera izango da.

4. artikulua

Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa lehenengo artikuluan azaldutako instalazioak erabiltzeko Udalak baimena ematen duen momentuan jaiotzen da.

5. artikulua

Prezioa ordaindu behar duenaren errua ez diren zergatiengatik instalazioak ezin badira erabili, Udalak dagokion diru kopurua bueltatuko du.

6. artikulua

1. Loiola auzoko udal pilotalekua erabiltzeak udal ondasunen galera edo hondamena ekarriko balu, kaltea eragin duen pertsonak, dagokion prezio publikoa ordaintzeko obligazioa salbu, konponketa edo berrikuntza gastu guztiak hartu beharko ditu bere gain, eta beraien diru kopuru osoa bermatu beharko du.

2. Kalteak konpondu ezinak balira, Udalak kalteordaina jaso beharko du, bere diru kopurua hondatutako ondasunen balioa edo kaltetutakoen narriaduraren zenbatekoa izan beharko delarik.

7. artikulua

Pilotalekua erabiltzeko Udalak edukiko du beti lehentasuna beste inoren gaineratik, eta publikoaren erabilera eten egin ahal izango du, Udal beharrianak (kultur ekintzak, jaiak, etab.) betetzeko.

8. artikulua

1. Udal pilotalekua erabili nahi dutenek ordua eskatu eta dagokion tarifaren zenbatekoa ordaindu beharko dute «Arratzuko» Herriko Tabernan.

2. Herriko Tabernaren arrendatariorari Udalak 1,5€ d ordainduko dio, kobratzen duen pilotalekuaren ordu bakoitzeko, zerbitzuaren kudeaketa ordaintzearen.

9. artikulua

Erabiltzaile talde bakoitzari baimentzen zaion gehienezko denbora ordubetekoa da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen den biharamonean, eta aldatu edo derogatzen den artean izango du indarra.

ERANSKINA

Tarifak

Pilotalekuaren erabilera, argi indarrez: 3€/orduko.